



**Derrigorrezko bigarren hezkuntzako, batxilergoko, lanbide heziketako
etahizkuntzen irakaskuntzako irakasleen prestakuntza unibertsitate Masterra**

2024-2025

23-24 ikasturtean Irakasleen Prestakuntza Masterreko Natur Zientziak eta Matematikak eta Teknologiako espezialitateetan aurrera eraman egin zen prestakuntza dualaren arrakasta kontutan izanik, 24-25 ikasturtean formakuntza honen bigarren edizioa aurrera eramatea erabaki da.

23-24 ikasturtean parte hartu zuten ikastetxeek adierazi dute beraien prestutasuna 24-25ko ikasturtean prestakuntza dualaren proiektuan jarraitzeko. Horrela, Ikasturte honetako esperientziarako 7 plaza eskainiko dira Natur Zientziak eta Matematikak, eta Teknologiako espezialitateetan Gipuzkoan.

Ikasleek Masterra egingo dute, jardunaldi osoko arduraldia eskatuko duen garapen profesionaleko programaren prestakuntza baten barruan. Jardunaldia ikasgeletan konbinatuko da, eskolak irakastorduetan emanez, ikaskuntza bultzatuko duten prestakuntzarekin, babesarekin eta esperientziekin, ikastetxeen benetako beharrei erantzuteko elementu gisa, ikastetxe horien hezkuntza-kalitatea hobetzeko eta ingurunearekin lotura dinamikoak eta lankidetzak-kultura sortzeko ezagutza transferentzian eremu berriak eraikiz. Helburua izango da profesional eraginkorrak eta inspiratzaileak garatzea, ikasle prestakuntzan eragin esanguratsua izango dutenak.

Testuinguru honetan helburu nagusia etorkizuneko hezitzaileak izango direnen hasierako prestakuntzaren baitan, ikasleen hasierako prestakuntza hobetzea eta, ondorioz, masterraren beraren hezkuntza kalitatea hobetzea izango litzateke.

Hautagai onenak hautatzeko, sarrerako titulazioaren batez besteko nota, curriculum, motibazio-gutuna, euskera hizkuntzako C1 titulua eta Gaitasun Pertsonaleko Froga (GPF) balioztatuko dira. Froga hau, elkarrizketa pertsonal baten bidez egingo zaie hautagaiei. Atal hauek guztiek kontutan izanik, hautagairik prestatuenak izendatuko dira ibilbide dual honetan parte hartzeko.

Masterraren prestakuntza duala egingo duten ikasleek modulu generikoko "Orientazioa eta Tutoretza" (3 ECTS), modulu espezifikoko Ikerkuntza' (3 ECTS) eta modulu espezifikoko Iiko 'Berrikuntza' ikasgaiak, Practicum (12 ECTS) eta MALA (6 ECTS) ikastetxean egingo dira.

Ikasgai hauek aukeratzearen arrazoi nagusiak bi dira; alde batetik, espezialitate guztiek partekatzen dituzten ikasgaiak direla eta, bestetik, ikasgai hauek beraien artean dituzten erlazioak osagarri egiten dituela da. Horrela, ikastetxean 27 ECTS kreditu egingo dira, hau da, Masterreko kreditu guztien % 45 (822/2021 Lege Dekretuan jasotako aipamen dualerako baldintza betetzen du).


Ikastetxean egingo diren moduluetakoa irakasgaiak iraila eta martxoa bitartean egingo dira. Hiru egunetan, goizez, joango dira ikastetxera modulu generiko eta espezifikoko ikasgaiak egitera. Ikasle hauek aukera izango dute, horrela nahiko balute, ikasgai hauekiko prestakuntza fakultatean osatu ahal izateko. Martxotik maiatza bitartean, aitzitik, ikasleak jardunaldi osoan egongo dira ikastetxean, Practicuma eta MALa egiteko, irakasgaiak emateko (Eusko Jaurlaritzaren III. eranskineko kidetasunak egokitzea) eta ikastetxeen egunerokoan parte hartzeko.

Prestakuntza honetan parte hartzen duten ikasleek dirulaguntza jasoko dute dual eredu honetan Masterra egiteagatik.

Ondorengo irudian ikus daiteke laburtuta ibilbidearen eta masterraren diseinu orokorra.

Irudia 1

Masterraren eta prestakuntza dualaren diseinu orokorra



Prestakuntza dual honetan parte hartu nahi duten ikasleek Masterreko webgunean prestakuntza dualaren atalean eskegita dagoen eskari-orria bete beharko dute ikasleek atxiki beharreko dokumentuak hurrengoak izanik:

- Titulazioaren batz-bestekoa
- Curriculum
- Motibazio-gutuna
- Euskera mailaren ziurtagiria

Eskari-orrian bertan adierazi beharko dute prestakuntza dualean parte hartuko duten ikastetxeetarik zein ikastetxe(t)an interesa izango luketen ikasleak prestakuntza duala egiteko.

Eskari-orria betetzeko azken eguna uztailaren 19an izango da.

Jasotako eskaerei hitzordua emango zaie elkarrizketa bat egiteko (aurrez-aurre edo online egiteko aukera egongo da) hurrengo datetan:

- Uztailaren 22tik-30ra
- Irailaren 2tik-6ra.

Ikasleak aukeratuak izango dira ondorengo merituen balorazioaren arabera:

- a. Titulazioaren batz-bestekoa (%10)
- b. Curriculum (%20)
- c. Motibazio-gutuna (%10)
- d. Euskera mailaren ziurtagiria (%10)
- e. Elkarrizketa (%50)

24-25ikasturteko prestakuntza dualean aukeratu diren ikasleei irailaren 9an jakinaraziko zaie.

Egutegia

2024-2025 ikasturtea

Iraila							
							1
	2	3	4	5	6	7	8
1	9	10	11	12	13	14	15
2	16	17	18	19	20	21	22
3	23	24	25	26	27	28	29
4	30						

Urria							
4		1	2	3	4	5	6
5	7	8	9	10	11	12	13
6	14	15	16	17	18	19	20
7	21	22	23	24	25	26	27
8	28	29	30	31			

Azaroa							
					1	2	3
A	4	5	6	7	8	9	10
1	11	12	13	14	15	16	17
2	18	19	20	21	22	23	24
3	25	26	27	28	29	30	

Abendua							
							1
4	2	3	4	5	6	7	8
5	9	10	11	12	13	14	15
6	16	17	18	19	20	21	22
	23	24	25	26	27	28	29
	30	31					

Urtarrila							
			1	2	3	4	5
A	6	7	8	9	10	11	12
1	13	14	15	16	17	18	19
2	20	21	22	23	24	25	26
3	27	28	29	30	31		

Otsaila							
						1	2
4	3	4	5	6	7	8	9
5	10	11	12	13	14	15	16
6	17	18	19	20	21	22	23
A	24	25	26	27	28		

Martxoa							
						1	2
1	3	4	5	6	7	8	9
2	10	11	12	13	14	15	16
3	17	18	19	20	21	22	23
4	24	25	26	27	28	29	30
5	31						

Apirila							
		1	2	3	4	5	6
6	7	8	9	10	11	12	13
7	14	15	16	17	18	19	20
	21	22	23	24	25	26	27
8	28	29	30				

Maiatza							
				1	2	3	4
9	5	6	7	8	9	10	11
A	12	13	14	15	16	17	18
	19	20	21	22	23	24	25
	26	27	28	29	30	31	

Ekaina							
							1
	2	3	4	5	6	7	8
	9	10	11	12	13	14	15
	16	17	18	19	20	21	22
	23	24	25	26	27	28	29
	30						

Aurkezpena
Prestakuntza DUALaren aurkezpena
Ikastetxeetan Formakuntza
Modulu generikoa
Modulu espezifikoa I
Modulu Espezifikoa II
Azterketak (A)
PRACTICUM
MAL defentsa-Ebaluazio saioa